SECRETARÍA GENERAL

C/ Bravo Murillo, n.º 38. Madrid 28015
secgral@adm.uned.es

**D.ª ELENA MACULAN, SECRETARIA GENERAL DE LA UNIVERSIDAD NACIONAL DE EDUCACIÓN A DISTANCIA,**

**C E R T I F I C A:** Que en la reunión del Consejo de Gobierno, celebrada el día trece de diciembre de dos mil veinticuatro, fue adoptado, entre otros, el siguiente acuerdo:

**10. Estudio y aprobación, si procede, de las propuestas del Vicerrectorado de Calidad y Acreditación.**

**10.02.** El Consejo de Gobierno aprueba el convenio de cooperación educativa entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través del Departamento de Seguridad, y la UNED, para la realización de prácticas académicas externas curriculares, en la Ertzaintza, del alumnado de dicha universidad que cursa estudios oficiales de grado y máster, según anexo.

Y para que conste a los efectos oportunos, se extiende la presente certificación haciendo constar que se emite con anterioridad a la aprobación del Acta y sin perjuicio de su ulterior aprobación en Madrid, a dieciséis de diciembre de dos mil veinticuatro.

Firmado digitalmente por
Elena Maculan
Secretaria General

**HEZKUNTZA-LANKIDETZARAKO HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (SEGURTASUN SAILAREN BIDEZ) ETA UNIVERSIDAD NACIONAL DE EDUCACIÓN A DISTANCIA (UNED) ARTEKOA, GRADU ETA MASTERREKO IKASKETA OFIZIALAK EGITEN ARI DIREN UNIBERTSITATE HORRETAKO IKASLEEI ERTZAINTZAN KANPOKO CURRICULUM-PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO.**

Izenpe elektronikoaren datan.

**ALDERDIAK**

Batetik, **Bingen Zupiria Gorostidi** jauna, Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburua, Segurtasuneko sailburua izendatzen duen Lehendakariaren ekainaren 24ko 25/2024 Dekretuaren bidez egindako izendapenaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (aurrerantzean, EAE) izenean eta hura ordezkatuz esku hartzen du.

Eta, bestetik, **Rebeca de Juan Díaz andrea**, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Kalitate eta Egiaztapeneko errektoreorde gisa (IFK: Q2818016D). Kargu horretarako izendatu zuten 2022ko abenduaren 20ko Errektoregoaren Ebazpenaren bidez, haren izenean eta hura ordezkatuz, Errektoregoaren 2024ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren bidez (otsailaren 9ko BOE) eskumenak eskuordetuta.

Alderdi biek hezkuntzako lankidetza-hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, ondorioz, honako hau

**ADIERAZTEN DUTE**

I. Gaur egun, UNEDek zenbait unibertsitate-diziplina ematen ditu, eta haien ikasketa-planetan jasota dago ikasleek aukera izango dutela erakundeetan eta enpresetan praktikaldi bat egiteko, dela aukerakoa, dela nahitaezkoa. Hala ere, ikasleek kanpoko praktikak egin ditzakete, ikasketa-planetan sartutako praktikez gain.

II. Honako hauek aplikatu behar dira: 822/2021 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Unibertsitate-irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituena; 2/2023

**CONVENIO DE COOPERACIÓN EDUCATIVA ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, A TRAVÉS DEL DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD, Y LA UNIVERSIDAD NACIONAL DE EDUCACIÓN A DISTANCIA (UNED), PARA LA REALIZACIÓN DE PRÁCTICAS ACADÉMICAS EXTERNAS CURRICULARES, EN LA ERTZAINTZA, DEL ALUMNADO DE DICHA UNIVERSIDAD QUE CURSA ESTUDIOS OFICIALES DE GRADO Y MÁSTER.**

A la fecha de la firma electrónica.

**REUNIDOS**

De una parte, D. **Bingen Zupiria Gorostidi**, Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, en virtud de nombramiento efectuado por Decreto 25/2024, de 24 de junio, del Lehendakari, de nombramiento del Consejero de Seguridad, que interviene en nombre y representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante, CAE).

Y de la otra parte, **D. ª Rebeca de Juan Díaz**, en calidad de Vicerrectora de Calidad y Acreditación de la Universidad Nacional de Educación a Distancia, con CIF Q2818016D, cargo para el que fue nombrada por Resolución rectoral de 20 de diciembre de 2022, en nombre y representación de la misma, por virtud de la delegación de competencias efectuada mediante Resolución Rectoral de 17 de enero de 2024 (BOE de 9 de febrero).

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad necesaria para otorgar este Convenio de Cooperación Educativa y, a tal efecto,

**EXPONEN**

I. En la actualidad, UNED imparte diferentes disciplinas universitarias, los planes de estudios de las cuales prevén la posibilidad de que el alumnado desarrolle un período de prácticas en instituciones y empresas, ya sea con carácter optativo u obligatorio. Sin embargo, el alumnado puede realizar prácticas externas más allá de las previstas en los planes de estudio.

II. Es de aplicación el Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre, por el que se establece la organización de las enseñanzas universitarias y del procedimiento de aseguramiento

Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena; Unibertsitateko Ikaslearen Estatutua, abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren bidez onartua; 592/2014 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Unibertsitate-ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituena, eta aplikatzekoak diren indarreko arau guztiak.

de su calidad, la Ley Orgánica 2/2023, de 22 de marzo, del Sistema Universitario, el Estatuto del estudiante universitario aprobado por Real Decreto 1791/2010, de 30 de diciembre, y el Real Decreto 592/2014, de 11 de julio, por el que se regulan las prácticas académicas externas de los estudiantes universitarios y toda aquella normativa vigente que le sea de aplicación.

III. Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 11. artikuluan Segurtasun Sailari egiteko eta jardun-arlo hauek ezartzen dizkio: a) Autonomia-erkidegoko polizia; b) Herritarren segurtasuna; c) Hauteskunde-administrazioa; d) Babes zibila eta larrialdiei aurre egitea; e) Trafikoa eta bide-segurtasuna; f) Jokoa, apustuak eta ikuskizunak; g) Segurtasun arloko transmisioak eta komunikazioak; h) Poliziaren ibilgailuak; i) Meteorologia; j) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea (Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia), legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera, eta k) legeek eta erregelamenduek esleitzen dizkioten gainerako ahalmenak.

III. Que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11 Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se atribuyen al Departamento de Seguridad las siguientes funciones y áreas de actuación: a) Policía de la Comunidad Autónoma b) Seguridad ciudadana, c) Administración electoral, d) Protección civil y atención de emergencias, e) Tráfico y seguridad vial, f) Juego, apuestas y espectáculos, g) Transmisiones y comunicaciones en materia de seguridad, h) Parque móvil policial, i) Meteorología, j) Dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, las entidades del sector público adscritas o dependientes del Departamento (Academia Vasca de Policía y Emergencias), y k) Las demás facultades que le atribuyan las leyes y los reglamentos.

IV. Segurtasun Sailak programa horretan elkarlanean aritzeko interesa du. Hala, bere instalazioetan kanpoko praktikak egiteko aukera eskainiko die ikasleei, eta parte-hartze aktiboa izango du haien prestakuntza praktikoan.

VI. El Departamento de Seguridad está interesado en colaborar en este programa, facilitando al/la estudiante la realización de prácticas externas en sus dependencias y participando activamente en su formación práctica.

V. Kontraprestazio ekonomikorik ez duen lankidetza horren bidez, titulazio horietako ikasleen prestakuntza praktikoa hobetu nahi da; lantokietako egoera errealetara egokitu behar da prestakuntza, eta kolektibo horrek harreman zuzena izan behar du lan-errealitatearekin eta egungo arazoekin. Titulazioa lortuko duten pertsonek lanbide-kualifikazio hobea izatea ekarriko du horrek.

V. Que, con dicha colaboración, carente de contraprestación económica, se pretende mejorar la formación práctica del colectivo de los y las estudiantes de la correspondiente titulación, adaptándola a las circunstancias reales de los centros de trabajo, promoviendo el contacto directo de dicho colectivo con la realidad laboral y su problemática actual, lo que se reflejará en una mejor cualificación profesional de las personas que reciban la titulación.

VI. Bi alderdiek, unibertsitate-munduaren eta lan-errealitatearen arteko harremanak areagotu nahian, ikasleen prestakuntza teoriko eta praktikoaren arloan elkarlanean aritu nahi dute, eta horregatik, elkarrekiko lankidetza gauzatzeko erarik onena lankidetza-hitzarmen akademiko bat formalizatzea dela adostu dute, ikasleek modu praktikoan garatu ditzaten unibertsitatean eskuratutako ezagutzak. Alde horretatik, alde interesdunek lotesteko lege-gaitasun nahikoa dutela aitortzen diote elkarri, eta hezkuntzako lankidetza-hitzarmen hau ematea adostu dute, klausula hauen arabera:

VI. Ambas partes, con voluntad de intensificar las relaciones entre el mundo universitario y la realidad profesional, quieren colaborar en el campo de la formación teórica y práctica del alumnado, por lo que acuerdan que la mejor manera de materializar la cooperación mutua es formalizar un convenio de colaboración académica con el objetivo de que el estudiante desarrolle de manera práctica los conocimientos que adquiere en la Universidad, y, en este sentido, las partes interesadas se reconocen mutuamente la capacidad suficiente para vincularse, y acuerdan el otorgamiento de este Convenio de Cooperación Educativa de conformidad a las siguientes

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA.- Xedea**

Aldeek hezkuntza-lankidetzako hitzarmen bat ezartzea adostu dute, Ertzaintzaren eta graduko edo masterreko ikasketa ofizialak egiten dituzten unibertsitateko ikasleen curriculumeko kanpoko praktika akademikoen esparru arautzailea ezartzeko eta, zehazki, Segurtasun Sailaren eta UNEDen arteko harremanak arautzeko.

**BIGARRENA.- Kanpoko praktiken izaera eta ezaugarriak**

Hezkuntzako lankidetza-hitzarmen honen indarraldiak dirauen bitartean, praktikan parte hartzen duen ikasleak ezingo du Segurtasun Saileko ezein lanpostu bete, ez eta aldi baterako ere.

Kontuan hartuta prestakuntza egitea dela kanpoko praktika akademikoen helburua, horietatik inoiz ez da etorriko lan-harreman batek dakarren eginbeharrik, eta praktiken edukiak ezin izango du lanpostuen berezko lan-prestazioaren ordezko izan.

Gainera, ikasketak bukatutakoan ikaslea Segurtasun Sailean lanean hasten bada, praktiketan emandako denbora ez da antzinatasun gisa zenbatuko, eta ez du probaldia izatetik salbuetsiko.

Administrazio publikoei, zuzenbide publikoko erakundeei eta gainerako erakunde publikoei dagokienez, kanpoko praktika akademikoak haietan egitea ez da meritutzat joko funtzio publikora sartzeko orduan, eta ez da antzinatasun gisa zenbatuko, ez eta aldez aurreko zerbitzuen aintzatespen gisa ere.

Segurtasun Sailak hezkuntzako lankidetza-hitzarmen hau sinatzeak ez du inola ere ekarriko bertan erabakitako konpromisoak baino gehiago hartzea.

Praktikak kontraprestazio ekonomikoren batekin egiten dituzten unibertsitate-ikasleak, ordaintzeko modua edo kontzeptua edozein dela ere, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean inskribatu beharko ditu ordainketa egiten duen erakundeak,

## CLÁUSULAS

**PRIMERA.- Objeto**

Las partes acuerdan establecer un convenio de cooperación educativa a fin de establecer el marco regulador de las prácticas académicas externas curriculares en la Ertzaintza, del alumnado universitario que cursa estudios oficiales de grado o máster y, en concreto, para regular las relaciones entre el Departamento de Seguridad y la UNED.

**SEGUNDA.- Naturaleza y características de las prácticas externas**

Durante la vigencia del presente Convenio de Cooperación Educativa, el/la alumno/a que participe en las prácticas no podrá ocupar puesto de trabajo alguno en el Departamento de Seguridad, ni de carácter eventual.

Dado el carácter formativo de las prácticas académicas externas, de su realización no se derivarán, en ningún caso, obligaciones propias de una relación laboral, ni su contenido podrá dar lugar a la sustitución de la prestación laboral propia de puestos de trabajo.

Asimismo, y en el caso de que al término de los estudios el/la estudiante se incorporase a la plantilla del Departamento de Seguridad, el tiempo de las prácticas no se computará a efectos de antigüedad ni eximirá del período de prueba.

En el ámbito de las Administraciones Públicas, Entidades de Derecho Público y demás Organismos Públicos, la realización en los mismos de las prácticas académicas externas no podrá tener la consideración de mérito para el acceso a la función pública, ni será computada a efectos de antigüedad o reconocimiento de servicios previos.

La suscripción por parte del Departamento de Seguridad del presente Convenio de Cooperación Educativa en ningún caso supondrá la adquisición de más compromisos que los estipulados en el mismo.

Los/Las estudiantes universitarios/as que realicen prácticas con cualquier tipo de contraprestación económica, independientemente del concepto o la forma de pago, deben ser inscritos en el régimen general de la Seguridad Social por la

prestakuntza-programetan sartuta dauden pertsonak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeko baldintzak arautzen dituen urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuaren 1. artikuluaren arabera.

entidad que efectúe el pago, conforme al artículo 1 del RD 1493/2011 de 24 de octubre, que regula los términos y condiciones de inclusión en el Régimen General de la Seguridad Social para personas involucradas en programas de Formación.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) aldatzen duen martxoaren 16ko 2/2023 Errege Lege Dekretuaren artikulu bakarraren 34. apartatuan ezarritakoaren arabera –berrogeita hamabigarren xedapen gehigarri berria eransten du–, Espainiako lurraldean kanpoko praktika akademikoak egiten dituzten ikasle guztiak Gizarte Segurantzaren sisteman sartuko dira, besteren konturako langileekin parekatuta, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.

De conformidad con lo establecido en el apartado 34 del artículo único del Real Decreto-ley 2/2023 de 16 de marzo, de Modificación del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, que añade una nueva disposición adicional quincuagésima segunda, todos los estudiantes que realicen prácticas académicas externas en el territorio español quedarán incluidos en el sistema de Seguridad Social como asimilados a trabajadores por cuenta ajena en el Régimen General de la Seguridad Social a partir del 1 de enero del 2024.

Ondorioz, ordaindu gabeko curriculum-praktika akademikoei dagokienez, aldeek adostu dute Unibertsitateak bete beharko dituela Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, Unibertsitateak hartuko duela enpresaburu-izaera, eta praktiketako benetako egunak jakinaraziko dituela, ikasleak prestakuntza-praktikak egingo dituen erakunde laguntzaileak emandako informaziotik abiatuta.

En consecuencia, en relación con las prácticas académicas curriculares no remuneradas, las partes acuerdan que el cumplimiento de las obligaciones de Seguridad Social corresponderá a la Universidad, que asumirá la condición de empresario y comunicará los días efectivos de prácticas a partir de la información que facilite la Entidad Colaboradora donde el estudiante realice las prácticas formativas.

Hitzarmen honen arabera 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera kanpoko praktika akademikoak egiten dituzten ikasle guztiek alta emanda egon beharko dute Gizarte Segurantzan, salbu eta geroagoko arauren batek xedapen gehigarria indarrean jartzeko data aldatzen badu edo ondoriorik gabe uzten badu.

Todos los estudiantes que en virtud de este Convenio realicen prácticas académicas externas a partir del 1 de enero de 2024 deberán estar dados de alta en Seguridad Social, salvo que exista una normativa posterior que modifique la fecha de entrada en vigor de la Disposición Adicional o la deje sin efecto.

Gizarte Segurantzako altak eta bajak une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera egingo dira, kanpoko praktika akademikoen hasieran alta emanez eta horiek amaitzean baja emanez. Hala ere, Gizarte Segurantzako kotizazioaren eta haren babes-ekintzaren ondorioetarako, ikasleak praktika horiek benetan egiten dituen egunak soilik hartuko dira kontuan.

Las altas y bajas en la Seguridad Social se realizarán de acuerdo con la normativa vigente en cada momento, con el alta al inicio de las prácticas académicas externas y la baja al concluir las mismas, sin perjuicio de que, para efectos de cotización a la Seguridad Social y su acción protectora, solo se considerarán exclusivamente los días en los que el estudiante efectivamente realice dichas prácticas.

**HIRUGARRENA.- Helburuak**

**TERCERA.- Fines**

Kanpoko praktika akademikoen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

Con la realización de las prácticas académicas externas se pretenden alcanzar los siguientes fines:

a) Ikasleei prestakuntza integrala lortzen laguntzea, horien ikaskuntza teorikoa eta praktikoa osatuz.

a) Contribuir a la formación integral del alumnado, complementando su aprendizaje teórico y práctico.

b) Ikasleek izango duten lan-errealitateari egokitutako lan-metodologia ezagutaraztea, eskuratutako ezagutzak kontrastatuz eta aplikatuz.

b) Facilitar el conocimiento de la metodología de trabajo adecuada a la realidad profesional en que el alumnado habrá de operar, contrastando y aplicando los conocimientos adquiridos.

c) Gaitasun teknikoak, metodologikoak, pertsonalak eta parte-hartzeari dagozkionak garatzen laguntzea.

c) Favorecer el desarrollo de competencias técnicas, metodológicas, personales y participativas.

d) Lan-munduan sartzen lagunduko dien eta haien etorkizuneko enplegagarritasuna hobetuko duen esperientzia praktikoa eskuratzea.

d) Obtener una experiencia práctica que facilite la inserción en el mercado de trabajo y mejore su empleabilidad futura.

e) Berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzailetzaren balioak sustatzea.

e) Favorecer los valores de la innovación, la creatividad y el emprendimiento.

**LAUGARRENA.- Kanpoko praktika akademikoen modalitatea**

**CUARTA.- Modalidad de prácticas académicas externas**

Kanpoko praktika akademikoak curriculumekoak izango dira.

Las prácticas académicas externas serán curriculares.

Curriculumaren barruko praktikak dagokion ikasketa-planaren barruko jarduera akademikoak dira.

Las prácticas curriculares se configuran como actividades académicas integrantes del Plan de Estudios de que se trate.

**BOSGARRENA.- Praktiken iraupena eta ordutegia**

**QUINTA.- Duración y horario de realización de las prácticas**

Praktikek iraupen hau izango dute:

La duración de las prácticas será la siguiente:

Curriculumaren barruko kanpoko praktikek dagokien ikasketa-planak ezarritako iraupena izango dute, berariaz beteta unibertsitate-irakaskuntzarako indarrean dagoen Espainiako legedian xedatutako baldintzak.

Las prácticas externas curriculares tendrán la duración que establezca el plan de estudios correspondiente en los términos establecidos por la legislación española vigente para las enseñanzas universitarias.

Praktikak egiteko ordutegiak horien ezaugarrien eta Segurtasun Sailaren prestasunaren arabera ezarriko dira. Nolanahi ere, ahalegina egingo da ordutegia bateragarria izan dadin ikasleek Unibertsitatean egiten duten jarduera akademikoarekin, prestakuntzarekin eta ordezkaritza- eta partaidetza-jarduerarekin.

Los horarios de realización de las prácticas se establecerán de acuerdo con las características de las mismas y la disponibilidad del Departamento de Seguridad. Los horarios, en todo caso, se procurará que sean compatibles con la actividad académica, formativa y de representación y participación desarrollada por el alumnado en la Universidad.

**SEIGARRENA.- Prestakuntza-proiektua eta praktiken baldintzak**

**SEXTA.- El proyecto formativo y las condiciones de las prácticas**

Kanpoko praktika akademiko bakoitzaren bidez gauzatuko den prestakuntza-proiektuak hezkuntza-helburuak eta garatu beharreko jarduerak finkatu beharko ditu. Helburuak ezartzeko

El proyecto formativo en que se concreta la realización de cada práctica académica externa deberá fijar los objetivos educativos y las actividades a desarrollar. Los objetivos se establecerán

orduan, kontuan hartuko da zer konpetentzia eskuratu behar dituen ikasleak (oinarrizkoak, orokorrak eta/edo berariazkoak). Orobat, praktikaren edukiak halako eran definituko dira, non bereganatu beharreko konpetentzien eta egindako ikasketen arteko zuzeneko harremana ziurtatuko den.

Prestakuntza-proiektu zehatzak eranskin bidez gehituko zaizkio hezkuntzako lankidetza-hitzarmen honi.

Nolanahi ere, ahalegina egingo da prestakuntza-proiektua printzipio hauen arabera eratu dadin: inklusioa, aukera berdintasuna, bazterkeriarik eza eta irisgarritasun unibertsala.

Halaber, ikasleak eranskin bat sinatuko du informazio honekin: ikaslearen datuak, praktikak egingo diren lekua, praktiken iraupena eta ordutegiak, tutorearen datuak, baimenen erregimena, ez-betetzearen ondorioz praktika behar baino lehenago bertan behera uzteko baldintzak, ikasketa-poltsa edo -laguntza bat –halakorik bada– eta hura jasotzeko modua, eta egin beharreko praktikak gauzatzeko esanguratsua den beste edozein informazio.

Ikasle bakoitzak hitzarmen honen eranskin gisa erantsitako dokumentuak sinatu beharko ditu praktiken hasieran.

**ZAZPIGARRENA.- Praktiketako ikasleen eskubideak eta betebeharrak**

1. Kanpoko praktika akademikoetan diharduten bitartean, eskubide hauek izango dituzte ikasleek:

a) Praktikek dirauten bitartean, UNEDeko irakasle baten edo Segurtasun Sailean jardunean ari den profesional baten tutoretzarako eskubidea.

b) UNEDek ezarritako irizpideen araberako ebaluazioa jasotzeko eskubidea.

c) Praktikei buruz Segurtasun Sailak egindako txosten bat jasotzeko eskubidea. Txosten horretan beren-beregi jasoko dira egindako jarduera, iraupena eta, behar izanez gero, praktiketan izandako errendimendua.

considerando las competencias básicas, genéricas y/o específicas que debe adquirir el/la estudiante. Asimismo, los contenidos de la práctica se definirán de forma que aseguren la relación directa de las competencias a adquirir con los estudios cursados.

Los proyectos formativos concretos se incorporarán al presente Convenio de Cooperación Educativa, mediante anexo.

En todo caso, se procurará que el proyecto formativo se conforme siguiendo los principios de inclusión, igualdad de oportunidades, no discriminación y accesibilidad universal.

Asimismo, se incorporará mediante anexo, que será firmado por el/la alumno/a, la información relativa a los datos del/ de la Alumno/a, el lugar de realización de las prácticas, la duración y el horario de realización de la prácticas, los datos de los/las tutores/as, el régimen de permisos, las condiciones de rescisión anticipada de la práctica en caso de incumplimiento, la existencia en su caso, de una bolsa o ayuda de estudios y la forma de su satisfacción y cualquier otra información que sea relevante en relación con las prácticas a realizar.

Cada alumno/a deberá suscribir al inicio de las prácticas los documentos que se adjuntan como Anexos al presente convenio.

**SÉPTIMA.- Derechos y deberes del alumnado en prácticas**

1. Durante la realización de las prácticas académicas externas, el alumnado tiene los siguientes derechos:

a) A la tutela, durante el período de duración de la correspondiente práctica, por un/a profesor/a de UNED y por un/a profesional que preste servicios en el Departamento de Seguridad donde se realice la misma.

b) A la evaluación, de acuerdo con los criterios establecidos por UNED.

c) A la obtención de un informe por parte del Departamento de Seguridad donde ha realizado las prácticas, con mención expresa de la actividad desarrollada, su duración y, en su caso, su rendimiento.

d) Jabetza intelektual eta industriala izateko eskubidea, arlo hori arautzen duen legerian ezarritakoaren arabera.

d) A la propiedad intelectual e industrial, en los términos establecidos en la legislación reguladora de la materia.

e) Segurtasun Sailaren aldetik segurtasunaren eta laneko arriskuen araudiari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

e) A recibir, por parte del Departamento de Seguridad, información de la normativa de seguridad y prevención de riesgos laborales.

f) Beren jarduera akademikoa, prestakuntzakoa, ordezkaritzakoa eta parte hartzekoa bete ahal izateko eskubidea, Segurtasun Sailari garaiz jakinaraziz gero.

f) A cumplir con su actividad académica, formativa y de representación y participación, previa comunicación, con antelación suficiente, al Departamento de Seguridad.

g) Desgaitasunen bat duten ikasleen kasuetan, beharrezkoak diren baliabideak jasotzeko eskubidea, praktikak besteen baldintza berberetan egiteko eta tutoretza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko.

g) A disponer de los recursos necesarios para el acceso del alumnado con discapacidad a la tutela, a la información, a la evaluación y al propio desempeño de las prácticas en igualdad de condiciones.

h) Desgaitasunen bat duten ikasleen kasuetan, praktiken garapena desgaitasunaren ondorioz eratorririko edo harekin loturiko jarduera eta egoera pertsonaletara egokitzeko eskubidea.

h) A conciliar, en el caso del alumnado con discapacidad, la realización de las prácticas con aquellas actividades y situaciones personales derivadas o conectadas con la situación de discapacidad.

i) Indarreko araudian aurreikusitako beste zeinahi eskubide.

i) Aquellos otros derechos previstos en la normativa vigente.

2. Halaber, ikasleek betebehar hauek izango dituzte kanpoko praktika akademikoak egiten ari direnean:

2. Asimismo, y durante la realización de las prácticas académicas externas, el alumnado deberá atender el cumplimiento de los siguientes deberes:

a) UNEDek kanpoko praktiketarako indarrean duen araudia betetzea.

a) Cumplir la normativa vigente relativa a prácticas externas establecida por UNED.

b) Praktiken prestakuntza-proiektua ezagutzea eta Segurtasun Sailak esleitutako tutorearen jarraibideei segituz betetzea, UNEDeko tutore akademikoak gainbegiratuta.

b) Conocer y cumplir el Proyecto Formativo de las prácticas siguiendo las indicaciones del/de la tutor/a asignado/a por el Departamento de Seguridad, bajo la supervisión del/de la tutor/a académico/a de UNED.

c) Praktika egiten duten bitartean, UNEDeko tutore akademikoarekin harremanetan egotea, gertatutako edozein gorabehera hari komunikatzea, eta bitarteko segimendua egiteko eskatzen zaizkion dokumentuak eta txostenak entregatzea, bai eta amaierako memoria ere.

c) Mantener contacto con el/la tutor/a académico/a de UNED durante el desarrollo de las prácticas y comunicarle cualquier incidencia que pueda surgir en el mismo, así como hacer entrega de los documentos e informes de seguimiento intermedio y la memoria final que le sean requeridos.

d) Hitzarturiko egunean Segurtasun Sailaren zentroan lanean hastea; hezkuntza-proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea,

d) Incorporarse al centro del Departamento de Seguridad de que se trate en la fecha acordada, cumplir el horario previsto en el

eta erakundearen jarduerarako, segurtasunerako eta lan-arriskuen prebentziorako arauak errespetatzea.

proyecto educativo y respetar las normas de funcionamiento, seguridad y prevención de riesgos laborales de la misma.

e) Prestakuntza-proiektua garatzea eta Segurtasun Sailarekin adostutako jarduerak arretaz betetzea, proiektuaren inguruan adostutakoaren arabera.

e) Desarrollar el Proyecto Formativo y cumplir con diligencia las actividades acordadas con el Departamento de Seguridad conforme a las líneas establecidas en el mismo.

f) Praktiketako amaierako memoria egitea eta, halakorik beharko balitz, tarteko txosten bat egitea.

f) Elaborar la memoria final de las prácticas y, en su caso, el informe intermedio.

g) Erabateko konfidentzialtasuna gordetzea Segurtasun Sailaren barne-informazioari, haren jarduerei eta erakundearen dinamikarekin zuzenean edo zeharka lotutako pertsonei buruzko datuei dagokienez, hori guztia ikaslea Segurtasun Sailean dagoen bitartean, bai eta praktikak amaitu ondoren ere.

g) Guardar absoluta confidencialidad en relación con la información interna del Departamento de Seguridad, sobre sus actividades y sobre datos relativos a personas relacionadas, directa o indirectamente, con la dinámica de la organización, todo ello tanto durante la estancia del estudiante en el Departamento de Seguridad, como una vez finalizadas las prácticas.

h) Segurtasun Sailaren zentroaren politikarekiko errespetu-jarrera adieraztea, dagokion UNEDen izen ona zainduta beti.

h) Mostrar, en todo momento, una actitud respetuosa hacia la política del centro del Departamento de Seguridad, salvaguardando el buen nombre de UNED a la que pertenece.

**ZORTZIGARRENA.- Tutoretzak eta haiek gauzatzeko betekizunak**

**OCTAVA.- Tutorías y requisitos para ejercerlas**

Kanpoko praktikak egiteko, ikasleek Segurtasun Saileko zentroko tutore bat eta UNEDeko tutore akademiko bat izango dituzte.

Para la realización de las prácticas externas, el alumnado contará con un/a tutor/a del centro del Departamento de Seguridad y un/a tutor/a académico/a de UNED.

Segurtasun Sailak izendatutako tutoreak lotura izan beharko du sail horrekin, eta tutoretza eraginkorra egiteko beharrezkoak diren lan-esperientzia eta ezagutzak eduki beharko ditu. Segurtasun Sailak izendatutako tutorea eta UNEDen tutoretza-lanak beteko dituen pertsona ez dira bat eta bera izango.

El/La tutor/a designado/a por el Departamento de Seguridad deberá ser una persona vinculada al mismo, con experiencia profesional y con los conocimientos necesarios para realizar una tutela efectiva. No podrá coincidir con la persona que desempeña las funciones de tutor/a académico/a de UNED.

UNEDeko tutore akademikoaren izendapena UNEDek berak ezarritako prozeduren bidez egingo da. Curriculumeko praktiketarako, tutoreak UNEDeko irakaslea izan beharko du, eta, era berean, lotura izan behar du praktikan jorratzen den irakaskuntzarekin.

La designación de tutor/a académico/a de UNED se hará de acuerdo con los procedimientos establecidos por la misma. Para las prácticas curriculares, el/la tutor/a deberá ser un/a profesor/a de la UNED, y afín a la enseñanza a la que se vincula la práctica.

**BEDERATZIGARRENA.- Segurtasun Sailaren zentroko tutorearen eskubideak eta betebeharrak**

**NOVENA.- Derechos y deberes del/de la tutor/a del centro del Departamento de Seguridad**

1. Segurtasun Sailaren zentroko tutoreak eskubide hauek izango ditu:

1. El/La tutor/a del centro del Departamento de Seguridad tendrá los siguientes derechos:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

a) UNEDek haren lankidetza-jarduera aintzatesteko eskubidea.

a) Al reconocimiento de su actividad colaboradora por parte de UNED.

b) Kanpoko praktiken araudiari eta haien prestakuntza-proiektuari eta garapen-baldintzei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

b) A ser informado acerca de la normativa que regula las prácticas externas, así como del Proyecto Formativo y de las condiciones de su desarrollo.

c) UNEDerako sarbidea izateko eskubidea, bere eginkizunak betetzeko behar dituen informazioa eta babesa eskuratzeko.

c) A tener acceso a UNED para obtener la información y el apoyo necesarios para el cumplimiento de los fines propios de su función.

d) UNEDek finkatutako bestelako kontsiderazio espezifikoak.

d) A aquellas otras consideraciones específicas que UNED pueda establecer.

2. Halaber, betebehar hauek izango ditu:

2. Asimismo, tendrá los siguientes deberes:

a) Ikasleari harrera egitea eta garatu beharreko jarduera prestakuntza-proiektuan zehaztutakoaren arabera antolatzea.

a) Acoger al/a la estudiante y organizar la actividad a desarrollar, con arreglo a lo establecido en el Proyecto Formativo.

b) Ikasleen jarduerak gainbegiratzea, eta praktikaren garapena bideratu eta kontrolatzea, elkarrekiko errespetua eta ikasketarekiko konpromisoa oinarri izanda betiere.

b) Supervisar sus actividades, orientar y controlar el desarrollo de la práctica con una relación basada en el respeto mutuo y el compromiso con el aprendizaje.

c) Ikasleari erakundearen antolakuntzaren eta funtzionamenduaren berri ematea eta intereseko araudia ezagutaraztea, segurtasunaren eta lan-arriskuen arlokoa batez ere.

c) Informar al/ a la estudiante de la organización y funcionamiento de la entidad y de la normativa de interés, especialmente la relativa a la seguridad y riesgos laborales.

d) UNEDeko tutore akademikoarekin koordinatzea hezkuntzako lankidetza-hitzarmen honetan adierazitako jardueren garapena, bai eta praktika normaltasunez garatzeko egin behar diren prestakuntza-proiektuaren aldaketak ere; praktika hori garatzean sor litezkeen aparteko gorabeherak komunikatu eta konpontzea eta azterketak egiteko baimenak kontrolatzea.

d) Coordinar con el/la tutor/a académico/a de UNED el desarrollo de las actividades establecidas en el Convenio de Cooperación Educativa, incluyendo aquellas modificaciones del plan formativo que puedan ser necesarias para el normal desarrollo de la práctica, así como la comunicación y resolución de posibles incidencias que pudieran surgir en el desarrollo de la misma y el control de permisos para la realización de exámenes.

e) Amaierako txostena egitea, bai eta, hala badagokio, bitarteko txostena ere, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoa betez.

e) Emitir el informe final, y en su caso, el informe intermedio a que se refiere el artículo 13 del Real Decreto 592/2014, de 11 de julio, que regula las prácticas académicas externas de los estudiantes universitarios.

f) Ikasleei praktikak egin ahal izateko behar duten prestakuntza osagarria ematea.

f) Proporcionar la formación complementaria que precise el/la estudiante para la realización de las prácticas.

g) Ikasleari praktika garatzeko nahitaez beharko dituen baliabide materialak ematea.

h) Ikasleek berritzeko, hobetzeko eta ekiteko proposamenak egin ditzaten sustatzea eta bultzatzea.

i) UNEDeko tutore akademikoari Segurtasun Sailaren zentrorako irispidea ematea, haren funtzioari dagozkion helburuak bete ditzan.

j) Isilpean gordetzea tutore gisa jardutearen ondorioz ezagutzen duen ikaslearen inguruko edozein informazio.

k) Segurtasun Sailaren zentroan diharduen bitartean, ikasleari laguntza ematea, praktika-jardueretan sortzen zaizkion eta bere jarduera gauzatzeko beharrezkoak dituen lan gorabeherak konpontzeko.

**HAMARGARRENA.- UNEDeko tutore akademikoaren eskubideak eta betebeharrak**

1. UNEDeko tutore akademikoak honako eskubide hauek izango ditu:

a) Bere jarduera akademikoaren aitortza jasotzea, UNEDek bere barneko araudiaren arabera zehaztutako baldintzetan, baina aitortza horrek ez du inola ere eragin ekonomikorik edo ordainsaririk ekarriko.

b) Kanpoko praktikak arautzen dituen araudiari buruzko informazioa jasotzea, baita prestakuntza-proiektuari buruzkoa ere; halaber, tutoretzapeko ikaslearen egonaldia zein baldintzatan egingo den jakiteko eskubidea.

c) Segurtasun Sailaren zentrorako sarbidea izatea, bere funtzioari dagozkion helburuak betetzeko.

2. Halaber, betebehar hauek izango ditu:

a) Hezkuntza-proiektua normaltasunez gauzatzen dela zaintzea; hala, praktiketarako ordutegia eta ikaslearen betebehar

g) Proporcionar al/a la estudiante los medios materiales indispensables para el desarrollo de la práctica.

h) Facilitar y estimular la aportación de propuestas de innovación, mejora y emprendimiento por parte del/ de la estudiante.

i) Facilitar al/a la tutor/a académico/a de UNED el acceso al centro del Departamento de Seguridad para el cumplimiento de los fines propios de su función.

j) Guardar confidencialidad en relación con cualquier información que conozca del/de la estudiante como consecuencia de su actividad como tutor/a

k) Prestar ayuda y asistencia al/ a la estudiante, durante su estancia en el centro del Departamento de Seguridad, para la resolución de aquellas cuestiones de carácter profesional que pueda necesitar en el desempeño de las actividades que realiza en el mismo.

**DÉCIMA.- Derechos y deberes del/de la tutor/a académico/a de UNED**

1. El/La tutor/a académico/a de UNED tendrá los siguientes derechos:

a) Al reconocimiento efectivo de su actividad académica en los términos que establezca UNED, de acuerdo con su normativa interna, sin que de dicho reconocimiento puedan derivarse en ningún caso efectos económico-retributivos.

b) A ser informado acerca de la normativa que regula las prácticas externas, así como del Proyecto Formativo y de las condiciones bajo las que se desarrollará la estancia del/de la estudiante a tutelar.

c) A tener acceso al centro del Departamento de Seguridad para el cumplimiento de los fines propios de su función.

2. Asimismo, tendrá los siguientes deberes:

a) Velar por el normal desarrollo del Proyecto Formativo, garantizando la compatibilidad del horario de realización de las

akademikoak, prestakuntza-betebeharrak eta ordezkaritza- zein partaidetza-betebeharrak bateratzen direla bermatuko du.

b) Praktiken jarraipen eraginkorra egitea, Segurtasun Saileko tutorearekin koordinatuta, hala badagokio, jarraipen txostenak aztertuta.

c) Prestakuntza-proiektuan egiten diren aldaketak baimentzea.

d) Tutoretzapeko ikaslearen praktiken ebaluazio-prozesua gauzatzea, UNEDen prozedurari jarraikiz.

e) Isilpean gordetzea tutore-lanak egitean jakiten duen informazio oro.

f) Gorabeherarik gertatuz gero, UNEDeko kanpoko praktiken organo arduradunari informatzea..

g) Beharrezko laguntza-baliabideak behar bezala eskuragarri daudela gainbegiratzea, eta, halakorik behar bada, eskatzea, desgaitasunen bat duten ikasleek praktikak aukera-berdintasunean, diskriminaziorik gabe eta irisgarritasun unibertsalarekin egitea bermatze aldera.

**HAMAIKAGARRENA.- Segurtasun Saileko tutorearen bitarteko jarraipen-txostena eta amaierako txostena**

Segurtasun Saileko tutoreak amaierako txosten bat egingo du eta UNEDeko tutore akademikoari bidaliko dio, praktikak amaitutakoan. Txosten horretan adieraziko du zenbat ordu eman dituen ikasleak, eta bertan balioetsi ahal izango ditu behean zehazten diren alderdiak, aintzat hartuta dagokion prestakuntza-proiektuan zehaztutako konpetentziak, hala orokorrak nola espezifikoak:

a) Gaitasun teknikoa.

b) Ikasteko gaitasuna.

c) Lanen kudeaketa.

prácticas con las obligaciones académicas, formativas y de representación y participación del/de la estudiante.

b) Hacer un seguimiento efectivo de las prácticas, coordinándose, para ello, con el/la tutor/a del Departamento de Seguridad, vistos, en su caso, los informes de seguimiento.

c) Autorizar las modificaciones que se produzcan en el Proyecto Formativo.

d) Llevar a cabo el proceso evaluador de las prácticas del/de la estudiante tutelado/a de acuerdo con los procedimientos de UNED.

e) Guardar confidencialidad en relación con cualquier información que conozca como consecuencia de su actividad como tutor/a.

f) Informar al órgano responsable de las prácticas externas en UNED de las posibles incidencias surgidas.

g) Supervisar, y, en su caso, solicitar, la adecuada disposición de los recursos de apoyo necesarios para asegurar que los/las estudiantes con discapacidad realicen sus prácticas en condiciones de igualdad de oportunidades, no discriminación y accesibilidad universal.

**UNDÉCIMA.- Informe de seguimiento intermedio e informe final del/de la tutor/a del Departamento de Seguridad**

El/La tutor/a del Departamento de Seguridad realizará y remitirá al/a la tutor/a académico/a de UNED un informe final, a la conclusión de las prácticas, que recogerá el número de horas realizadas por el/la estudiante y en el cual podrá valorar los siguientes aspectos, referidos, en su caso, tanto a las competencias genéricas como a las específicas, previstas en el correspondiente Proyecto Formativo:

a) Capacidad técnica.

b) Capacidad de aprendizaje.

c) Administración de trabajos.

d) Ahozko eta idatzizko komunikaziorako trebetasunak. Desgaitasunen bat duten ikasleen kasuan, ahozko adierazpenerako zailtasunak baldin badituzte, trebetasun horretarako zein autonomia-maila daukaten adierazi beharko da, baita horretarako baliabide teknikoren bat eta/edo giza baliabideren bat behar duten ere.

e) Ardurarako sena.

f) Egokitzeko erraztasuna.

g) Sormena eta ekimena.

h) Inplikazio pertsonala.

i) Motibazioa.

j) Kritikak onartzeko gaitasuna.

k) Puntualtasuna.

l) Lan-ingurunearekiko harremanak.

m) Taldean lan egiteko gaitasuna.

n) Egokitzat jotako bestelako alderdiak.

Praktiken erdia igarotzen denean, bitarteko jarraipen-txosten bat egin ahal izango da, prestakuntza-proiektuan hala ezartzen bada.

**HAMABIGARRENA.- Ikaslearen praktiken bitarteko jarraipen-txostena eta amaierako memoria**

Praktikak amaitzean, ikasleak amaierako memoria bat egingo du eta UNEDeko tutore akademikoari entregatuko dio. Memoria horretan, honako alderdi hauek jaso behar dira:

a) Ikaslearen datu pertsonalak.

d) Habilidades de comunicación oral y escrita. En el caso de estudiantes con discapacidad que tengan dificultades en la expresión oral, deberá indicarse el grado de autonomía para esta habilidad y si requiere de algún tipo de recurso técnico y/o humano para la misma.

e) Sentido de la responsabilidad.

f) Facilidad de adaptación.

g) Creatividad e iniciativa.

h) Implicación personal.

i) Motivación.

j) Receptividad a las críticas.

k) Puntualidad.

l) Relaciones con su entorno laboral.

m) Capacidad de trabajo en equipo.

n) Aquellos otros aspectos que se consideren oportunos.

Una vez transcurrida la mitad del período de duración de las prácticas, podrá elaborarse un informe intermedio de seguimiento, cuando así se establezca en el Proyecto Formativo.

**DUODÉCIMA.- Informe de seguimiento intermedio y memoria final de las prácticas del alumnado**

El/La estudiante elaborará y hará entrega al/a la tutor/a académico/a de UNED una memoria final, a la conclusión de las prácticas, en los que deberán figurar, entre otros, los siguientes aspectos:

a) Datos personales del/de la estudiante.

b) Praktikak egin ditueneko Segurtasun Sailaren zentroko helbidea eta kokapena.

c) Honako hauen deskribapen zehatz eta xehatua: egindako zeregin eta lanak, eta Segurtasun Sailaren zentroko zer sailetan egon den.

d) Egindako lanei buruzko balorazioa, kontuan hartuta zer ezagutza eta konpetentzia eskuratu dituen egindako unibertsitate-ikasketen bidez.

e) Planteatutako arazoen zerrenda eta horiek konpontzeko prozedura.

f) Praktikek ikaskuntza-arloan egin dioten ekarpenaren identifikazioa.

g) Praktiken ebaluazioa eta hobetzeko iradokizunak.

Ikasleak, hala badagokio, bitarteko jarraipen-txosten bat egingo du –ahal dela praktiken erdian–, prestakuntza-proiektuaren garapenari buruzko balorazioa jasotzeko.

**HAMAHIRUGARRENA.- Praktikak ebaluatzea**

Ikaslearen praktikak balioetsiko ditu UNEDeko tutore akademikoak, UNEDek ezarritako prozedurari jarraikiz, eta, horretarako, dagokion balorazio-txostena egingo du.

**HAMALAUGARRENA.- Aintzatespen akademikoa eta ziurtagiria**

Kanpoko praktiken aintzatespen akademikoa UNEDek ezarritako arau eta prozeduren arabera egingo da.

Kanpoko praktikak bukatutakoan, ikasleak eskatuz gero, praktikei buruzko ziurtagiri bat egingo du UNEDek, non, gutxienez, honako alderdi hauek jasoko baitira:

a) Dokumentuaren titularra.

b) Centro del Departamento de Seguridad donde ha realizado las prácticas y lugar de ubicación.

c) Descripción concreta y detallada de las tareas, trabajos desarrollados y departamentos del centro del Departamento de Seguridad a los que ha estado asignado.

d) Valoración de las tareas desarrolladas con los conocimientos y competencias adquiridos en relación con los estudios universitarios.

e) Relación de los problemas planteados y el procedimiento seguido para su resolución.

f) Identificación de las aportaciones que, en materia de aprendizaje, han supuesto las prácticas.

g) Evaluación de las prácticas y sugerencias de mejora.

El/La estudiante elaborará, en su caso, un informe de seguimiento intermedio, preferentemente una vez transcurrida la mitad del período de duración de las prácticas, que recoja la valoración del desarrollo del Proyecto Formativo.

**DECIMOTERCERA.- Evaluación de las prácticas**

El/La tutor/a académico/a de UNED evaluará las prácticas desarrolladas, de conformidad con los procedimientos que establezca UNED, cumplimentando el correspondiente informe de valoración.

**DECIMOCUARTA.- Reconocimiento académico y acreditación**

El reconocimiento académico de las prácticas externas se realizará de acuerdo con las normas y procedimientos establecidos por UNED.

Finalizadas las prácticas externas, UNED emitirá, a solicitud del/de la estudiante, un documento acreditativo de las mismas que contendrá, al menos, los siguientes aspectos:

a) Titular del documento.

b) Segurtasun Sailaren zer zentrotan egin dituen praktikak.

b) Centro del Departamento de Seguridad donde se realizaron las prácticas.

c) Praktikaren deskribapena, iraupena eta noiz egin den zehaztuta.

c) Descripción de las prácticas, especificando su duración y las fechas de realización.

d) Egindako jarduerak.

d) Actividades realizadas.

e) UNEDek komenigarritzat jotako bestelako alderdiak.

e) Aquellos otros que UNED considere conveniente.

**HAMABOSGARRENA.- Arau bereziak**

**DECIMOQUINTA.- Normas especiales**

Kanpoko praktikak egiten dituzten ikasleek, hala dagokionean, arau berezi hauek bete beharko dituzte:

Los/Las estudiantes que realicen prácticas externas deberán cumplir, en su caso, las normas especiales que se detallan a continuación:

*Adingabeekin ohiko harremana izanda egindako praktikak*

*Prácticas realizadas con contacto habitual de menores*

Adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten praktiketan, nahitaezko betekizuna izango da epai irmo baten bidezko kondenarik jaso ez izana sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituengatik. Horretarako, aipatutako praktikak egingo dituen ikasleak Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, delitu horiengatik zigorrik jaso ez duela egiaztatzeko.

Será requisito obligatorio para las prácticas que impliquen contacto habitual con menores, el no haber sido condenado por sentencia firme por algún delito contra la libertad e indemnidad sexual. A tal efecto, el/la estudiante que fuese a realizar dichas prácticas deberá, con carácter previo, aportar una certificación negativa del Registro Central de delincuentes sexuales.

Hori guztia honako hauei jarraikiz: Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluko 5. apartatua (Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarrita); eta Boluntariotzaren 45/2015 Legea.

Todo ello de conformidad con el apartado 5 del artículo 13 de la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor (introducido por la Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de Protección a la infancia y a la adolescencia) y la Ley 45/2015, de voluntariado.

*Zentroetan egindako praktikak, jarduera arriskutsuak egitea dakartenak*

*Prácticas desarrolladas en Centros cuya actividad conlleve riesgos*

Segurtasun Sailaren jardueraren batek arriskuan jartzen badu ikasleen osasuna eta segurtasuna, arrisku horiek saihesteko segurtasun-neurri guztiak hartuta eduki beharko ditu Segurtasun Sailak; gainera, arrisku horiei buruzko beharrezko informazio guztia, prestakuntza eta jarraibideak emango dizkie ikasleei.

Si dentro de la actividad del Departamento de Seguridad se pudiese poner en riesgo la salud y la seguridad de los/as estudiantes, el Departamento de Seguridad deberá tener adoptadas todas las medidas necesarias para evitar dichos riesgos y, así mismo, facilitará toda la información y formación necesarias a los/as estudiantes y las instrucciones en relación con dichos riesgos.

Segurtasun Sailak egingo duen jarduerari aplikatu beharreko indarreko araudia betetzeko egingo da hori guztia. Besteak beste –aipagarri gisa eta mugatzeko asmorik gabe–, araudi hauek aplikatuko dira, hala badagokio: agente biologikoekin lotutako arriskuen babesari buruzko araudia, osasun-zerbitzuen eta erietxeen arloan tresna ebakitzaile eta puntazorrotzek eragindako lesioak prebenitzeko araudia eta abar.

